

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE


«Egungo sistema politikoak frankismoari zilegitasuna kendu beharko lioke»

Parlamentaria eta Batzarreko kidea izateaz gain, 1936an Nafarroan fusilatu, hil eta desagerrarazitako senideen elkarteak dabil Ioseba Eceolaza (Iruñea, 1979). Oroimen historikoaren berreskurapenak 2014an Nafarroan eman ditzakeen urratsez mintzo zaigu.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

PABLO DE GREIFF, Nazio Batuetako errelatoreak otsailean Espainiako Estatura eginiko bisitan harridura agertu zuen 1936ko Gerrako biktimei alde Estatuak eginiko lan eskasa zela kausa. Desagertuekiko eta hauen senideekiko “Estatu politika” aldarrikatu zuen, biktimei ematen zaien tratua hauteskundeetako emaitzen arabera izan ez dadin. 1977ko Amnistia Legearen ondorioak bertan behera geratzea eskatu zuen ere, orain arte epaitegietara iritsi diren kasu bakanei giltza emateko funtzioa izan baitu, eta, Argentinan frankismoaren krimenen kontra ireki den kereilari loturik, Espainiak nazioartean kolaboratu beharra duela ohar egin zuen.

1936ko altxamendua eta gero, falangistek nahiz karlistek 3.400 pertsona hil zituzten Nafarroan. Mila gorpu inguruk bide bazterretan desagerturik jarraitzen dute, gerraren amaieratik 75 urte iragan badira ere. Nafarroan fusilatu, erail eta desagerrarazitakoen elkarteak eginiko lanak ahalbidetu du, hein handi batean, Nafarroako Parlamentuak berriki Memoria Historikoaren Legea onartu izana, edota “alargunen herria” bezala ezagutzen den Sartagudan Memoriaren Parkearen irekiera. Ioseba Eceolazaren irudikoz, 2014 urtea erabakigarria izan daiteke Nafarroako 1936ko Gerrako biktimek, behin goz, euren aitormena lor dezaten.



I. ECEOLAZAK UTZIA

Gerraren ondorioak nozitu zituen jendea beranduegi iristen ari zaio aitormena?

Demokraziak askoz lehenago kendu behar zion zilegitasuna frankismoari. Fusilatuen eta hauen familien duintasuna aitortzeko, Trantsizioan urrezko aukera galdu genuen. Sinestezina da ikustea nola 2014an senideek eta elkarteetako kideek bilatu behar dituzten bide bazterretara jaurtitako gorpuak, euren denbora eta esfortzua erabiliz. Memoria Historikoaren politika zehatza ez edukitzea oso esanguratsua da. Gure gizartearen, gure erakundearen eta gure demokraziaren kalitatearen isla da. Gerra Zibilaren garaitik, hala Espainian

nola Nafarroan, zientoka desagertu dagoela normaltasunez bizi duen gizarteak bere buruari zenbait galdera egin beharko lizkioke.

Memoria Historikoaren berreskurapenean, nolakoa izan da Nafarroako Gobernuaren jokabidea?

Jokabide kontraesankorra erakutsi du. Memoria Historikoaren legearekin abstenitu ziren, baina betetzen ari dira. Sartagudako Memoriaren Parkea eraikitzeak ere abstenitu egin ziren, baina 150.000 euroekin lagundu zuten. Nafarroa osoko 90 udaltik goitik Memoriaren Parkea diruz lagundu zuten, eta horietako batzuetan UPNk gehiago osoz agintzen zuen, Iruñea eta Tuterako kasu. Noski, ez da UPNren meritua. Memoria Historikoaren aldeko mugimenduen garaipena da. Senideek denbora luzez eutsi diote, eta bete-betean asmatu dute etikan, giza eskubideetan, eta gizarteak eta erakundeak kontentzitatezko sentsibilitatean oinarritutako diskurtsoa eraikitzen.

Espainiako Estatuan memoriaren berreskurapenean atzera egiten ari direla ematen du.

Memoria Historikoaren lehenengo legea 2007an onartu zuten, eta mugatua bada ere, hamaika kritika jaso baditu ere, aurrerakada nabarmena ekarri zuen. Memoria Historikoaren gaia normalizatzea ekarri zuen, eta

gure lanik gogorrena burutzeko –desagertuak bilatu eta hauen gorpuk berreskuratzea– baliabide ekonomikoak eskaini zizkigun. Alderdi Popularrak boterea berreskuratu zuenean, laguntzak moztu zituzten, eta orain gorpuk lurretik ateratzen baditugu, boluntarioen lanari esker da, elkarteko bazkideek ematen duten diruaz baliatuta. Honek hausnarketa merezi du: Espainia, Kanbo-diaren atzetik, munduan desagertu gehien dituen herrialdea da.

Nazioartean, badirudi urratsak ematen ari direla, Argentinako frankismoaren krimenen aurkako kereilan adibidez.

Gure elkarteko ordezkari bat Madrilgo Argentinako enbaxadan izan zen, auzian parte hartu ahal izateko. Eztabaida juridikoa baino, garrantzitsua deritzogu jakinaraztea egungo sistema politikoak frankismoari behin betikoz zilegitasuna kendu behar diola. Eta horretarako, arras garrantzitsua da ulertzea erail, torturatu eta pertsonak bahitu zituzten horiek ezin dutela zigorgabetasunik eduki. Gizateriaren aurkako krimenak dira. Nafarroa bezalako lurralde txiki batean, beste modu batean pentsatzeagatik, 3.400 pertsona hil zituzten. Eta horri tratamendu judiziala eman behar zaio.

Indarkeria aztertzeke, egia, justizia eta ordainaren prismak erabili behar dira. Egia ezagutzen dugu, senideen eta alor akademikoaren bidez. Erreparazioa poliki-poliki ematen ari da, udaletan, erkidegoetan eta baita Espainiako Gobernuan ere. Justizia da hankamotz geratzen ari dena.



KOLDO AZKUNE ETXABARRI

Apirilaren 12an gerran fusilatutak omendu zituzten Iruñeko Gazteluko Bueltan.

PPko bozeramaileek mendekua nahi duzuela diote.

Kritika hori 2002an ohikoagoa zen, gu hasi ginelarik. Orain, ia-ia ez da kritika hori mahai gainean jartzen, Memoria Historikoaren aldarrikapen lasaia egiten dugula ikusi baita, etikaren ikuspuntutik ari garela alegia. Egunotan Marta del Castelloren gorpuzkiak bilatzen ari dira Sevillan. Tamalez, bere familiak badaki hilik dagoela. Baina gorpuzkiak aurkitzea beharrezkoa dute. Dolua modu egokian ixteko bide bakarra da. Gurekin berdin gertatzen da. Ez da bidezkoa pertsona batek, 78 urtez, bere buruari senidea non ote dagoen galdetzen ibili behar izatea. Gizartearen zati handi batek konprenitzen du gure eskaerak arrazoizkoak direla, onargarriak direla.

Epe laburrera, zein da zuen erronka?

Memoria Historikoaren Legeak orain 35 urte itxita behar luketen kapituluei akabera eman beharko lieke. Frankisten sinbologia kenduz, hezkuntzan 1936ko Gerrari ematen zaion tratamendua aldatuz, Memoria Historikoaren alde lan egiten duten taldeak lagunduz... Lege hori betetzeko borondatea dagoenean, gure gizarteak urrats garrantzitsua eman duela esan ahal izanen dugu, heldutasun etiko eta politikoa erakutsi duela. Legeak dio Nafarroako Gobernuak atera behar dituela gorpuk, eta DNA-banku baten sorrera posible egiten du, Nafarroako Auzitegi-Medikuntza Institutuarekin batera lan egingo duena. 2014. urtea Memoria Historikoaren urterik garrantzitsuenak izan daiteke. ■








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia